

# HELDU DEN MAIATZAREN 28KO KONTZEJU HAUTESKUNDEETARAKO JARRAIBIDEAK

---

Martxoaren 29ko 34/2023 Foru Dekretuak, zeina apirilaren 4ko 68. NAO berezian argitaratu baitzen, Nafarroako kontzejuen hauteskundearen deialdia egin zuen; hauteskundeok heldu den maiatzaren 28an egingen dira, udal hauteskundeekin eta Nafarroako Parlamenturako hauteskundeekin batera.

Kontzeju hauteskundeetan martxoaren 16ko 12/1991 Foru Legea bete beharko da, Nafarroako Kontzejuetako hauteskunde prozesuak arautzen dituen (35. NAOa, martxoaren 20koa).

Duzuen populazioa kontuan harturik, kontzejuko buruak eta kontzejuan bizi eta hauteskundeak egitean erroldan inskribaturik dauden pertsona guztiek osatutako **Kontzeju Irekia** da zuen kontzejuari dagokion gobernu araubidea, non ez diozuen heldu Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeke uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean (otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak emandako idazketari jarraiki) aurreikusitako aukerari, zeinak bide ematen baitu, gehiengo osoz hartu bada erabakia kontzeju hauteskundearen deialdia egin baino lehen, Batzorde gisa eratzeko, betiere Foru Komunitatearen Administrazioari jakinarazi ondoren.

Arestian adierazitako aldaketa egin bazen, gobernu araubide horri dagozkion jarraibideak Federazioaren web-orrian kontsultatzen ahal dituzue honako helbidean: [www.fnmc.es/eu/](http://www.fnmc.es/eu/).

Ondoren, argibide gehiago emanen ditugu hautagaitzak aurkezteari eta hauteskunde prozesuaren beste alderdiei buruz.

## 1.- HAUTAGAI ZERRENDAK AURKEZTEA

Kontzeju Irekiaren araubideko kontzejuko burua hautatzeko, gehiengoaren sistema erabiltzen da, hautestontzian bozkaturik udal hauteskundeak egiten diren egun berean. Horretarako, beharrezkoa da aurkezten diren hautagaitzek hauteskunderi buruzko legediak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzea; hona hemen horien gaineko azalpen batzuk:

Alderdiez, koalizioez eta alderdien federazioez gain, beren hautagai-zerrenda aurkez dezakete hautesle-elkarteek ere. Azken horiek udalerriko hautesle-erroldan izena emana duten hautesleen sinadura-kopuru bat behar dute, eta sinadura horiek notarioak egiaztatuko ditu, edo, kontzejua zer udaletan dagoen, horko idazkariak. Sinaduren kopurua izanen da, gutxienez, hautesle erroldan izena emandakoen %10.

Garrantzitsua da kontuan hartzea, Hauteskunde Batzorde Zentralaren azaroaren 23ko 1/2022 Jarraibidea, zeinak hautesle-elkarteek udal hauteskundeetara aurkeztu behar dituzten abalak

sinadura elektronikoaren bidez ziurtatzeko prozesua ezartzen baitu. Kasu horretan, udalak baliozkotzat jotzen dituen sinadura elektronikoko prozedura baten bidez egin ahalko da eta idazkaria izango da sinadura baimendu beharko duena. Horretarako, Udalak egoitza elektronikoan jarri beharko du udal hauteskundeetan hautesle-elkarteek abalak aurkezteko baliozkotzat jotzen dituen sinadura elektronikoko sistemen zerranda.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluan xedatuarekin bat, alderdiek, federazioek, koalizioek edo hautesle-elkarteek ezin dute hautagaitzarik aurkeztu baldin eta judizialki legearen kontratatzat jo eta desegin edo bertan behera utzitako alderdi politiko baten jardunari jarraitzen badiote edo hura ordezkatzeko badute. Ondorio horietarako, kontuan hartuko da funtsezko antzik dagoen hautagaitzak zuzendu, ordezkatu edo administratzen dituzten pertsonen egituren, antolamenduaren eta funtzionamenduaren artean, edo finantza bideen edo baliabideen jatorriaren artean, edo beste edozein gauza aipagarririk badagoen, jarraipen hori edo ordezkatzeko hori badagoela pentsatzeko bide ematen duenik, hala nola indarkeria edo terrorismoa babesteko jarrera.

Hautagai-zerrendak apirilaren 19tik 24ra bitarte aurkeztu behar dira, biak barne, zein bere Eskualdeko Hauteskunde Batzordean. Kasu guztietan, hautagaitza aurkezteko idazkiak honako hauek jaso behar ditu:

- a.** Argi eta garbi adierazi behar dira alderdiaren, federazioaren, koalizioaren nahiz talde sustatzailearen izena, siglak eta ikurra.
- b.** Hautagaiaren izen-abizenak.
- c.** Hautagaien hautagai-zerrenda onartzen dutela dioen aitortpena.
- d.** Hautagaiak hautagarriak direla egiaztatzen duen dokumentua.
- e.** Hautesle-elkarteen kasuan, horiek sustatzen dituztenen egiaztagiria (horien kopurua arestian aipatu dugu).
- f.** Hautesle-elkarteen kasuan, hautagai-zerrendaren ordezkarien izendapena.

Ordezkariaren eginkizunak izanen dira:

- Hauteskunde-mahaietarako artekariak izendatzea eta akreditatzea. Izendapena hauteskundeak baino hiru egun lehenago arte egin daiteke. Artekaria izateko, hauteslea izan eta hautesle-eroldan izena emanda egon behar da. Nolanahi ere, beste hauteskundeetan ez bezala, ez da nahitaezkoa izanen izena emanda egotea beren eginkizunak beteko dituzten hauteskunde-barrutiko eroldan.

Hauteskunde Batzorde Zentralaren urtarrilaren 23ko 1/2019 Jarraibidearekin bat, zeina artekarien botoari buruzkoa baita hauteskunde-prozesu batzuk batera egiten diren kasuetan, artekariak zer mahaitan dauden akreditaturik, horretan eman beharko dute botoa, betiere deitutako prozesu guztietan bozkatu behar duen hauteskunde-barrutiaren barnean badago mahai hori, eta hori betetzen ez bada prozesuetako batean, ordea, posta bidez bozkatu beharko du guzti-guztietan.

Apirilaren 26an argitaratuko dira NAO on aurkeztutako hautagaitza guztiak.

Maiatzaren 2an argitaratuko dira, NAO on ere, onartutako hautagaitzak.

## 2.- HAUTESKUNDE KANPAINA

Hauteskunde-kanpainak hamabost egunez iraunen du, ostirala den maiatzaren 12ko gauerdiko zeroetatik ostirala den hil bereko 26ko gauerdiko hogeita lauak arte. Epe horretatik kanpo, debeku da ezein hauteskunde-propagandaren ekintzarik egitea.

## 3.- BOZKETA ETA ZENBAKETA

Kontzeju hauteskundeetan, udal hauteskundeetarako eraturako mahai beretan eginen da bozketa.

Ondorio horietarako, udal hauteskundearen mahaia bakarra bada, bertan eginen da udalerriko kontzejuei dagokien bozketa ere, eta, horretarako, hautestontzi bana izanen dute kontzejuek.

Bat baino gehiago badira hauteskunde-mahaiak, hautesle banaketa bera izanen du kontzejuei dagokien bozketak, eta, horretarako, kontzeju bakoitzak bere hautestontzi berariazkoa izanen du mahai bakoitzean.

Bozketa goizeko bederatzietan hasiko da, eta arratsaldeko zortziak arte iraunen du, etenik gabe.

Botoa sekretua da, eta onartutako hautagai bakar bati baino ezin dio eman hautesleak.

Hauteskunde-mahaietan egiten den zenbaketa publikoa da, eta zenbaketa horren akta bete behar da, hauteskunde-legediak ezarritako terminoetan.

Lehendabizi, udal hauteskundeen zenbaketa egin behar da, eta, bigarrenaz, kontzeju hauteskundeei dagokiena, kontzejuen hurrenkera alfabetikoari jarraikiz.

Eskualdeko hauteskunde-batzordeak izanen du zenbaketa orokorra eta hautagai hautetsien izendapena egiteko eskumena.

Argibide gehiago nahi izanez gero, Federazioaren web orrian jaso dezakezue (<https://www.fnmc.es/eu/>) “[2023ko Udala eta Kontzejuetako hauteskundeak](#)” izeneko atalean. Bertan, hauteskunde-egutegia aurki daiteke, bai eta hauteskundeei buruzko hainbat informazio ere, unean-unean eguneratuko dena.